



EMANDAKO ZERBITZUA

Zinemaldiak bi ezaugarri nagusi ditu: batetik, filmek oso harrera ona izaten dute, bai ikusleen bai kritikarien eta komunikabideen artean –bertakoak eta nazioartekoak–; eta bestetik, Donostian zinema-industriaren presentziak hazten jarraitzen du.

Akreditatu kopuruak handitzen jarraitzen du, batez ere industriako kideak gero eta gehiago direlako. Baina, beharbada, Zinemaldia nolakoa den ondoen definitzen duen datua urtero zinema-aretoetara doan ikusle kopurua da. 2018an zein 2017an, berriz ere 174.000tik gora ikusle izan dira, 186.000 biztanleko hirian.

Gogobetetze ratioak:

- Ondoren, Industriako gonbidatuei egindako inkestaren emaitzak ikus ditzakezue:

	2018ko puntuazioa	2017ko puntuazioa
Guztirako puntuazioa:	8,45	8,54
Zinemaldiaren bideoteka	8,28	7,76
Lanbide Eremua	8,49	8,56
Koprodukzio Foroa	7,98	8,02
Mahai-inguruak, European Film Forum	7,67	7,62
Zinema eraikitzen	7,50	7,19
Glocal in Progress	7,08	7,11
Industriaren komunikazioa eta argitalpenak	8,19	8,29

- Ikusleek bidalitako idatzizko erreklamazioen portzentajea saldutako sarrera kopuruarekiko % 0,03ekoa da 2018an eta % 0,05ekoa 2017an.
- Kulturaren Behatokiak mila profesionalak baino gehiagok osatutako aditu talde baten artean egindako inkestaren arabera, Donostia Zinemaldia 2018ko Espainiako bostgarren kultur jarduera baloratuena da (laugarrena 2017an), eta lehena, bi urtetan, urteko garai jakin batean izaten direnen artean.